badalab
HIZKUNTZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA

**BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA**

**2021EKO AURREKONTUAREN MEMORIA**

1. PARTZUERGOAREN AURREKONTUAZ AURREIKUSPENA

BADALAB ez da diru banaketarako sortu den laborategia. Bere bokazio nagusietako bat eragitea da. Eta honek dakar, bere baliorik handienetako bat lantaldea bera izatea. Aldi berean, laborategia aktiboa izango da berrikuntza aukeren bila, antena funtzioa egingo duen Behatokia eta eraikiko diren sareak baliatuta; beraz, programa propioak garatzeko moduan izango da.

2. 2022KO AURREKONTUAK OSATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE NAGUSIAK:

2022 urtean, badago oraindik ezohiko faktore bat: behin betiko egoitzan egin behar den egokitzapenak aurrekontuaren zati bat jango du. Beraz, diru hori gutxiago egongo da datorren urtean erabilgarri eta, aukeran, deialdien atala ezabatzea hobetsi da, badagoelako esperimentazio programa propioetan aukera ugari jardun moldeak esperimentatzeko, harreman sareak osatzeko eta laborategiaren izaera berritzailea erakusteko. Hortaz, BADALAB osatuko duen lantaldearen kontratazioak pisu nabarmena edukiko du urteko aurrekontuan, esperimentazio programak eta BADALABen gizarteratzearekin batera.

2022an laborategiaren oinarria finkatuko da:

- 2021eko azaroan kontratazea espero den zuzendariarekin batera, partzuergoaren lantaldea finkatuko da
- Udaberrian lantalde horrek egoitza berritua eta ondo ekipatua izango du
- Laborategiaren jarduera (programa propioak eta bidelaguntza) garatuko da
- BADALAB gizarteratuko da eta bere gobernantza sendotu

Zehaztasunetara etorriz, urte honetan zehar, lau izango dira lan ildo nagusiak:

**CONSORCIO DE INNOVACIÓN LINGÜÍSTICA BADALAB**

**MEMORIA DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2022**

1. PREVISIÓN PRESUPUESTARIA DEL CONSORCIO

BADALAB no es un laboratorio creado para el reparto de dinero. Una de sus principales vocaciones es provocar. Y esto supone que uno de sus mayores valores sea el propio equipo de trabajo. Al mismo tiempo, el laboratorio será activo en la búsqueda de oportunidades de innovación, a través del Observatorio que realizará la función de antena y de las redes que se construyan, lo cual permitirá desarrollar programas propios.

2. PRINCIPALES CRITERIOS UTILIZADOS PARA ELABORAR LOS PRESUPUESTOS 2022:

Durante el año 2022 sigue existiendo un factor excepcional: la adecuación de la sede definitiva se llevará parte del presupuesto. Por lo tanto, el próximo año habrá menos dinero disponible y, en consecuencia, se ha optado por eliminar el apartado de subvenciones, ya que en los programas propios de experimentación hay muchas opciones para probar formas de hacer, crear redes de relación y mostrar el carácter innovador del laboratorio. Por tanto, la contratación del equipo que formará BADALAB tendrá un peso importante en el presupuesto anual, junto con los programas de experimentación y la presentación en sociedad de BADALAB.

En 2022 se fijará la base del laboratorio:

- Consolidación del equipo de trabajo del consorcio junto con el/la director/a, contratación prevista para noviembre de 2021
- Durante la primavera, este equipo tendrá una sede renovada y bien equipada
- Desarrollo de la actividad del laboratorio (programas propios y acompañamiento)
- BADALAB se socializa y consolida su gobernanza

De acuerdo con las especificaciones, a lo largo de este año, cuatro serán las principales líneas de trabajo:

- Azpiegitura eta pertsonak
- Esperimentazio programak; lan ereduaren garapena
- BADALABen jendaurreko aurkezpena eta laborategiaren sozializazioa.
- Gobernantza eredua eta deliberazioa

2.1 Azpiegitura eta pertsonak:

a. Azpiegitura - Egoitza fisikoa.

Apirila – ekaina bitarte BADALAB Torrekuan egongo da kokatuta. Ordurako aurreikusten da egokitzapen obren amaiera Madalena kaleko behin betiko egoitza osatzeko. Jarduera hori osatzeko, bizipenLAB kontzeptuaren garapena aurreikusten da; laborategira datozenek bertako espazioekin edo tresnekin interakzioan biziko duten esperientzia elikatzeko baliabideak sortuko direlarik (nagusiki digitalak izango direla aurreikusten da, baina bideak erakutsiko digu nora iritsiko garen).

Gastu korronte bidez, eta “leasing” formatua baliatuz, lantaldeak eskura beharko dituen baliabideak eskuratuko dira (ordenagailuak, telefonoak…), baita egunerokorako hornidurak erosi ere.

Aurrekontuaren zati bat Torrekuako espazioaren alokairura, kontratatu beharreko aseguruetara, bulego zein higiene materialetara… bideratuko da; laborategiaren funtzionamendu gastuetara, alegia.

b. Pertsonak.

Bere ezaugarriek baldintzatzen dute laborategiak behar duen lantaldea. Bi multzotan bereizi daiteke lantalde hori:

- Proiektuen arabera antolatuko diren lantalde iragankorrak
- Laborategiaren langile egonkorrak

Lantalde iragankorrak proiektu bakoitzak dituen ezaugarrien arabera osatuko dira, beti ere diziplina desberdinen arteko igurtzia bilatuz eta gaitasun teknikoak modurik eraginkorrenean uztartuz. Pertsona hauek identifikatzeko orduan, kontuan hartuko dira ideia bakoitzaren sustatzaileak, partzuergoko kideen espezialistak eta merkatu zabaleko aukerak, beti ere zerbitzu lagapena, kontratu merkantila eta antzeko formula iragankorrak erabiliz.

- Infraestructura y personas
- Programas de experimentación; desarrollo del modelo de trabajo
- Presentación pública de BADALAB y socialización del laboratorio.
- Modelo de gobernanza y deliberación

2.1 Infraestructura y personas:

a. Infraestructura - Sede física.

Hasta abril – junio, BADALAB estará ubicado en Torrekua. Es para entonces cuando se prevé la finalización de las obras de acondicionamiento de la sede definitiva de la calle Madalena. Para completar dicha actuación, está previsto el desarrollo del concepto bizipenLAB, creando recursos para alimentar la experiencia de los asistentes al laboratorio a través de la interacción con los espacios (se prevé que sean principalmente digitales, pero el camino nos enseñará a dónde llegaremos).

Mediante gasto corriente, y utilizando el formato “leasing”, se obtendrán los recursos necesarios (ordenadores, teléfonos…) para el equipo de trabajo y se adquirirán los suministros para el día a día.

Parte del presupuesto se destinará al alquiler del espacio de Torrekua, los seguros a contratar, los materiales de oficina e higiene, etc., gastos de funcionamiento del laboratorio.

b. Personas.

Sus características condicionan el equipo de trabajo que necesita el laboratorio. Este grupo de trabajo se puede dividir en dos grupos:

- Grupos de trabajo temporales, por proyectos

- Personal estable del laboratorio

Los grupos de trabajo transitorios se formarán en función de las características de cada proyecto, buscando siempre la interacción entre diferentes disciplinas y conjugando las capacidades técnicas de la manera más eficaz. A la hora de identificar a estas personas se tendrán en cuenta los promotores de cada idea, los especialistas de los miembros del consorcio y las posibilidades de mercado abierto, utilizando fórmulas transitorias como la cesión de servicios o el contrato

Gastu hauek programa esperimentalen partidatik gauzatuko dira.

Funtzionamendu dinamika honek ahalbidetuko du laborategiaren talde egonkorra murritza izatea. Zuzendariaz gain, hiru lanpostu aurreikusten dira, ondoko profiletakoak:

- Administrazio arduraduna

BADALABek izaera publikoa izango duenez, bere lanaren parte bat izango da laborategiaren prozedura guztietan legetasuna zaintzea, bereziki eduki ekonomikoa dutenetan, hala nola, kontratazioak, lizitazioak, deialdiak, esleipenak...

Horrekin batera, eta BADALABen izaera esperimentalari erantzuteko, beharrezkoa da kudeaketa aurreratuaren logikan jardutea, teknologiak, adimen kognitiboak eta pentsamendu sortzaileak ingurune aldakorrean eskaintzen dituzten aukerak baliatzeko, adimen emozionala eta soziala lantzeko trebetasunak erabilita.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren lagapen bidez etorriko dela aurreikusten bada ere, lehen seihilekoa gestoria baten kontratazioarekin abiatuko dugu, perfil honen definizio zehatza eguneroko egitekoek ematen diguten bitartean.

- Behatoki arduraduna

BADALABen zeregin garrantzitsuetako bat entzutea da. Egungo testuingurua ulertzea, gero balioa erantsi ahal izateko. Horretarako, 3 kanal desberdineko behatokia eraikiko da (ikerketetatik edango du; mundu digitalean, sarean, datuak, narratibak… jasoko ditu; eta bi bide horietatik jasotakoak adimen kolektiboa aktibatzeko erabiliko dira). Profil honen ardura litzake behatokiaren eraikuntza, dagoeneko lurraldean martxan diren ekimenak mapatu, eta elkarlana lehenetsiz, sinergiak topatu eta behar zein aukerak identifikatu.

Laborategiaren espazio digitala, ere, bere ardurapean kokatuko da. Espazio fisikoan edukiko diren baliabideak zein sarean eraikitzea aurreikusten dena.

mercantil. Estos gastos se realizarán desde la partida de programas experimentales.

Esta dinámica de funcionamiento permitirá que el equipo estable del laboratorio sea reducido. Además del/a director/a se prevén tres puestos de trabajo de los siguientes perfiles:

- Responsable de administración

Dado el carácter público de BADALAB, parte de su trabajo consistirá en velar por la legalidad de todos los procedimientos del laboratorio, especialmente aquellos de contenido económico, tales como contrataciones, licitaciones, convocatorias, adjudicaciones, etc.

Paralelamente, y para dar respuesta al carácter experimental de BADALAB, es necesario actuar en la lógica de la gestión avanzada para aprovechar las oportunidades que ofrece la tecnología, la inteligencia cognitiva y el pensamiento creativo en un entorno cambiante, utilizando habilidades para trabajar la inteligencia emocional y social.

Si bien se prevé que vendrá por cesión de la Diputación Foral de Gipuzkoa, el primer semestre se iniciará con la contratación de una gestoría, mientras que la definición exacta de este perfil se la dan las tareas diarias.

- Responsable del Observatorio

Una de las tareas importantes de BADALAB es escuchar. Comprender el contexto actual para poder añadir valor. Para ello, se construirá un observatorio de 3 canales diferentes (bebiendo de las investigaciones, recogiendo datos, narrativas, etc. en el mundo digital, en la red, y la información procedente de ambas vías se utilizará para activar la inteligencia colectiva). Este perfil sería el responsable de la construcción del observatorio, mapeando las iniciativas ya existentes en el territorio y priorizando la colaboración, encontrando sinergias e identificando necesidades y oportunidades.

El espacio digital del laboratorio también se ubicará bajo su responsabilidad, tanto los recursos digitales disponibles en el espacio físico como los que están previstos construir en el mundo digital.

Esparru digitalak eta gizarte zientzien arteko nahasketa litzake desiragarria profil honetarako, Humanitate Digitalen esparrukoa. Kanpo kontratazio bidez etorriko dela aurreikusten da.

Sería deseable para este perfil una mezcla entre ámbitos digitales y ciencias sociales, del ámbito de las Humanidades Digitales. Se prevé su incorporación mediante contratación externa.

- Esperimentazio arduraduna

- Responsable del área de experimentación

BADALABen esperimentazio esparruaren arduraduna, laborategiaren bihotzaren arduraduna da. Esperimentazioa ahalbideratu eta bermatuko duten programa berrien diseinua garatzea, bidelaguntzarako tresna eta metodologiak diseinatzea, komunitate ekintzen diseinatzaile eta bideratzaile izatea, eta trebakuntza tresna zein saioen arduradun izatea daude bere eginbeharrekoen artean. Pertsona honek diseinu metodologia, bitartekaritza teknikatan, jantzia behar du izan, bizia, jakinmin handikoa, lotsarik gabea, ausarta, probokatzailea. Kanpo kontratazio bidez etorriko dela aurreikusten da.

El/la responsable del campo de experimentación de BADALAB es el/la responsable del corazón del laboratorio. Entre sus funciones se encuentran el desarrollo de nuevos programas que permitan y garanticen la experimentación, el diseño de herramientas y metodologías de acompañamiento, el diseño y facilitación de acciones comunitarias y la responsabilidad sobre las herramientas y sesiones de formación. Esta persona necesita estar capacitada en metodologías de diseño, en técnicas de intermediación, con una gran curiosidad, sin vergüenza, valiente, provocador/a. Se prevé su incorporación mediante contratación externa.

Kontratazio bidez etorriko diren bi pertsonak topatzen laguntzeko aholkularitza baten laguntza bilatuko da.

Se buscará la ayuda de una asesoría para apoyar la selección de las dos personas que vendrán por contratación externa.

Bestalde, BADALABek, abiapuntuan, legetasunari lotutako egitekoak izango dituenez (barne araudia idaztea edo elkarlan hitzarmenak idaztea, adibidez), lege aholkularitzarako gastu korronteko partida bat gorde da.

Por otro lado, y dado que BADALAB va a desempeñar funciones relacionadas con la legalidad, como la redacción de normativa interna o la redacción de convenios de colaboración, se ha reservado una partida de gasto corriente para el asesoramiento jurídico.

Gainera, partzuergoa abiatzeko fase honetan lehendakari postuak dedikazio handi samarra eskatzen duenez, aurreikusi da dieta bat ordaintzea.

Además, en esta fase de puesta en marcha del consorcio, el cargo de presidente requiere una dedicación considerable, por lo que está previsto abonar una dieta.

2.2 Esperimentazio programak; lan ereduaren garapena:

2.2 Programas de experimentación; desarrollo del modelo de trabajo:

a. Esperimentazio programak: BADALABen bihotza dira, eta aurrekontuetan nabarmenagoa izatea nahiko genuken arren; programazio propiorako aurrekontu zati esanguratsua gorde da. Hemen ez dira ukigarri egiten elkarlanean sustatutako programatan beste eragileek jartzea aurreikusten diren baliabideak eta finantziazioa (ko-finantziazioa).

a. Programas de experimentación: Son el corazón de BADALAB y aunque nos gustaría que fuera más evidente en los presupuestos, se ha reservado una parte importante del éste para la propia programación. Aquí no se hacen tangibles los recursos y la financiación (co-financiación) que se prevé lleguen de otros agentes en los programas promovidos en colaboración.

2021 urtean garatutako gazteei bideratutako inkesta eta Etorkizuna Jokoan (The Future Game) programari eta bertatik ateratako ondorioei jarraipena emanez, gazteen ildoari sendo helduko zaio, batetik, eta eskala desberdinak jorratuko

Dando continuidad a la encuesta dirigida a los jóvenes y al programa Etorkizuna Jokoan (The Future Game) desarrollados durante el año 2021 y a las conclusiones extraídas de los mismos, se abordará de forma decidida la línea dedicada al

dituzten programa esperimentalak garatuko dira, bestetik, hala nola, nazioarte mailakoak, zein tokiko eskalakoak, herri/eskualde mailakoak. Azken kasu honetan, Errenteriako ekosistematik abiatuko garela aurreikusten da, BADALAB bertan kokatzen denez. 2021 urtean gertatu moduan, hauek guztiak eragile desberdinekin elkarlanean landu eta finantzatzea bilatuko da.

Bestalde, 2021 urtean abiatutakoari jarraipena emanez, 2022 urtean zehar, Gipuzkoa Taldean deialdiko bigarren eranskineko egitasmoak bidelaguntzen jarraituko da. Hau guztia bideratzeko arduraduna esperimentazio arduraduna izango da.

b. Lan ereduaren garapena.

BADALABen lan eredurako hiru prozesu nagusi definitu dira: Entzun – Esperimentatu – Sozializatu.
Esperimentazioaren ardatza aurreko atalean garatu da.

Entzun-sentitu prozesua 2021 urtean abiatu da, gazteei bideratutako inkesta masibo baten bitartez. Oraingoan honi jarraipena ematea bilatuko da, ateratako ondorioak lantzeko adimen kolektibo saioak artikulatuz, eta, behar izango balitz, inkestaren bigarren erronda bat luzatuz. Honen ardura partekatua izango da zuzendaria eta behatoki arduradunaren artean.

2.3 Sozializazioa eta ebaluaketa:

a. Sozializazioa.

BADALAB laborategiaren arrakastarako giltzarri nagusietako bat da ekosistemaren artikulazioa, batetik, eta gizarteko segmentu desberdinetara iristeko gaitasuna, bestetik.

Horretarako, badu ildo estrategiko oso bat definiturik, baina aurrekontuak lagunduta joan behar da, halabeharrez. Osotasunean gastu korronte bidez erabiltzea aurreikusten da. Apirila-ekainerako aurreikusten da gizarte aurreko aurkezpen ofiziala, egoitzaren irekierarekin bat eginez, baita material eta euskarri desberdinen sorrera, sozializazio ekintza espezifikoak…

sector de las/los jóvenes. Además, se desarrollarán programas experimentales que abordarán diferentes escalas, tanto a nivel internacional como local y regional. En este último caso, se prevé que partiremos del ecosistema de Errenteria, ya que BADALAB se ubica en el mismo. Al igual que ocurrió en el año 2021, se buscará que todo ello se trabaje y financie en colaboración con diferentes agentes.

Por otro lado, dando continuidad lo puesto en marcha durante el año 2021, a lo largo del año 2022 se continuará con el acompañamiento de los proyectos del segundo anexo de la convocatoria Gipuzkoa Taldean. El/la responsable de canalizar todo esto será el/la responsable de experimentación.

b. Desarrollo del modelo de trabajo.

Se han definido tres procesos principales para el modelo de trabajo de BADALAB: Escuchar – Experimentar – Socializar. El eje de la experimentación se ha desarrollado en el apartado anterior.

El proceso de sentir y escuchar se ha iniciado en el año 2021 mediante una encuesta masiva dirigida a jóvenes. En esta ocasión se buscará dar continuidad a la misma, articulando sesiones de inteligencia colectiva para trabajar las conclusiones obtenidas y, si fuera necesario, extendiendo una segunda ronda de la encuesta. Esta responsabilidad será compartida entre el/la director/a y el responsable del observatorio.

2.3 Socialización y evaluación:

a. Socialización.

Una de las principales claves para el éxito del laboratorio BADALAB es la articulación del ecosistema y la capacidad de llegar a diferentes segmentos de la sociedad.

Para ello tiene definida una línea estratégica completa, pero necesariamente debe ir acompañada de un presupuesto. Se prevé su utilización en su totalidad mediante gasto corriente. Para abril-junio se prevé su presentación en sociedad oficial, coincidiendo con la apertura de la sede, además de la creación de materiales y soportes diversos, acciones específicas de socialización…

Egitasmo estrategiko honen baitan, ez da komunikazio arduradunaren kontratazioa aurreikusten. Agentzia baten azpikontratazioz gauzatuko da, zeinaren ardura izango den komunikazio eta marka estrategiak definitu eta garatzea, programa esperimental desberdinen marka estrategia diseinatzea, euskarri desberdinen diseinua… baita sare sozialen kudeaketa eta aurkezpen ofizialaren edukien diseinuan bidelaguntzea.

b. Ebaluaketa

BADALABek, tresnak eta adierazleak sortu beharko ditu ekintza eta esperimentu desberdinetan zehar sortutako ezagutza ukigarri egiteko eta hauek eragindako inpaktua neurtzeko. Aurten ez da aurrekontu espezifikorik bideratuko, egunerokoan lantaldeak presente edukiko duen gaia bada ere, tresnak sortu eta prototipatuz, eragileekin batera landuz…

2.4 Gobernantza eta deliberazioa:

Erreferentzia garbirik gabeko atala da hau, ere. Esperimentala. Beraz, esperientzia eta ezagutza baliatzeko helburuz, Kultura Politiko Berriaren Think Tank.aren testuinguruan gauzatuko da, honekin konektatuta.

Aurreikusten da ‘ezaugintza’ deitu den zerbitzu bat, ezagutzaren kudeaketa aktiboa egiteko. Laborategiaren gobernantza ereduak garrantzi handia jartzen du deliberazioan, adimen kolektiboa sortzeko tresna gisa. Prozesu hau, ordea, ez da espontaneoa izango baizik eta metodologikoki eragindakoa, emaitzetara bideratua, eraginkorra izan dadin. Aurreikusten da interes-taldeen arteko elkarrekintza estimulatua, eta horren emaitzak eragina izatea erabakiguneetan. Hau guztia litzateke ezaugintza zerbitzuaren ardura, eta kanpo hornikuntza moduan kontratatuko litzateke, interes-taldeekiko autonomia duen erakunderen batekin.

3. BESTE ERAKUNDEEN FINANTZIAZIOA

Aurrekontu proiektua osatzeko momentuan GFAak egindako ekarpen ekonomikoa izan da oinarria, aintzat hartu gabe beste erakunderen batek egin lezakeen ekarpena.

Dentro de este proyecto estratégico no se contempla la contratación del responsable de comunicación. Se llevará a cabo mediante la contratación de una agencia encargada de definir y desarrollar estrategias de comunicación y marca, diseñar la estrategia de marca de los diferentes programas experimentales, diseñar diferentes soportes… así como facilitar el diseño de los contenidos de la presentación oficial y la gestión de las redes sociales.

b. Evaluación

BADALAB deberá crear herramientas e indicadores que permitan tangibilizar el conocimiento generado a lo largo de las diferentes acciones y experimentos, además de medir el impacto de los mismos. Este año no se destinará un presupuesto específico, si bien es un tema que el equipo tendrá presente en el día a día, creando y prototipando herramientas, trabajando con los agentes…

2.4 Gobernanza eta deliberación:

También es un apartado sin referencias claras. Experimental. Por lo tanto, con el objetivo de aprovechar la experiencia y el conocimiento, se desarrollará en el contexto del Think Tank de la Nueva Cultura Política, conectado con él.

Se prevé un servicio denominado ‘ezaugintza’ para la gestión activa del conocimiento. El modelo de gobernanza del laboratorio pone el acento en la deliberación como herramienta para generar inteligencia colectiva. Sin embargo, este proceso no será espontáneo sino metodológicamente inducido, orientado a resultados, para que sea efectivo. Se prevé una interacción estimulada entre los grupos de interés y que el resultado de la misma afecte a los puntos de decisión. Todo esto sería responsabilidad del servicio “ezaugintza” y se contrataría como provisión externa con alguna entidad autónoma de los grupos de interés.

3. FINANCIACIÓN DE OTRAS ENTIDADES

La base ha sido la aportación económica de la DFG en el momento de la elaboración del proyecto de presupuestos, sin tener en cuenta la posible aportación de otras entidades.

## 4. AUTOFINANTZIAZIOA

Aurrekontua GFAak emandako ekarpen ekonomikora mugatu bada ere, gure buruari finantzaketa bide osagarriak bilatzeko helburua jarri diogu, partzuergoaren estatutuetan espreski jaso zen moduan. Orain arte egindako bidean ikusten hasi gara autofinantzazio maila bat egingarria dela.

## 4.- AUTOFINANCIACIÓN

Aunque el presupuesto se ha limitado a la aportación económica de la DFG, nos hemos propuestoel consorcio se ha marcado el objetivo de buscar vías de financiación complementarias, tal y como se recogió expresamente en sus estatutos. En el camino recorrido hasta ahora hemos empezado a ver que un nivel de autofinanciación es factible.

badalab
HIZKUNTZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA

| BADALAB<br>2022KO ADMINISTRAZIO AURREKONTUA / PRESUPUESTO ADMINISTRATIVO 2022 | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Gastuak/Gastos | Zenbatekoa Importe | | Sarrerak/Ingresos | Zenbatekoa Importe |
| 1.- Langileria gastuak / Gastos de personal<br><br>2.- Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak / Gastos corrientes en bienes y servicios<br><br>3.- Gastos financieros / Finantza gastuak<br><br>4.- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes<br><br>5.- Kontingentzietarako eta beste ezusteko batzuetarako funtsa/ Fondo de contingencia y otros imprevistos. | 190.994,01<br><br>208.835,00 | | 1.- Zuzeneko zergak / Impuestos directos<br><br>2.- Zeharkako zergak / Impuestos indirectos<br><br>3.- Tasak eta bestelako dirusarrerak / Tasas y otros ingresos<br><br>4.- Transferentziak arruntak / Transferencias corrientes<br><br>5.- Ondare sarrerak / Ingresos patrimoniales | 399.829,01 |
| Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes. | 399.829,01 | | Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes. | 399.829,01 |
| 6.- Inbertsio errealak / Inversiones reales<br><br>7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital | | | 6.- Inbertsio errealak besterentzea / Enajenación de inversiones reales<br><br>7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital | |
| Kapital eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital | | | Kapital eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital | |
| 8.- Finantza aktiboak/<br>Activos financieros<br><br>9.- Finantza pasiboak<br>Pasivos financieros | | | 8.- Finantza aktiboak/<br>Activos financieros<br><br>9.- Finantza pasiboak<br>Pasivos financieros | |
| Finantza eragiketa, guztira<br>Total operaciones financieras | | | Finantza eragiketa, guztira<br>Total operaciones financieras | |
| Guztira/Total | 399.829,01 | | Guztira/Total | 399.829,01 |